

# ESKOLA BATEKO IKASLEEN BEHARRAK NOLA ASETZEN DIRA



Lehen hezkuntzako 5. maila

*Elena López*

## LAN-ESKEMA

**Irakasgaia:** Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

**Gaia:** Herri bateko umeen eta bere familien beharrak nola hasetzen dira?

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 6. maila

**Saio kopurua:** 3 - 6 saio

### Proposamenaren testuingurua

Guztiok herri hala hiri batean bizi gara, tamaina, biztanle kopurua, paisaia... oso ezberdina izan arren, gure herrietan Udaletxe eta familien artean dauden harremanetan eskubide eta betebeharrak bi aldeetatik bete behar dira.

Gizarteak udal administrazio irekia eskatzen du, etengabe hobetzen aritu behar duena. kudeaketak hiritarren behar eta itxaropenak ase beharko ditu. Administrazio horrek ahalik eta bizkorren, hoberenen eta erarik eraginkorrean eman beharko du zerbitzua eta, horretarako, antolatze metodo nahiz tresna administratibo eta teknologiko moderno eta aurreratuenak erabili beharko ditu.

Hiritarrek ( familiak, ikasleak,...) elkarrekin bizi behar dute eta hala hori egiteko nola guztion eskubide eta interesak zein gure hirian dauden pertsona guztienak babesteko, jokabide-arau zehatzak eta demokratikoki onetsitako legeak bete behar dira. Eskubideen erabilera oztopatu edo betebeharrak betetzen ez badira, gizarte guztian eragiten duten ondorioak sortzen dira.

Unitate honetan horixe landuko dugu: Zeintzu dira bakoitzak bizi garen herrian ditugun ESKUBIDE? Gure beharrak asetzen al dira?. Zeintzu dira eskubide eta behar horiek?. Jakin badakigu Eskubideak eta betebeharrak loturik daudela, beraz zeintzu dira gure betebeharrak?. Eta nola egingo dugu ados ez gaudenean?. Liskar posibleen artean zeintzuk izan daitezke aurre egiteko bide positiboena?. Ba al dakigu erreklamazio bat egiten?. Eta komunitate batean arazoak daudenean hartu behar diren erabakiak?. Herritar guztien ongizatea helburu izanik zein izan beharko litzateke guztion konpromezuak?...

Plana gauzatzeko doazen neurrian, ikasleak informazioa gordetzen eta antolatzen joango dira, bukaeran lanaren aurkezpen bat egiteko kideen ( zikloan edo maila baxuagoetan) edo gurasoen aurrean eta herriko Alkatearekin edo ordezkariarekin elkarrizketa egiten prestatu behar dira. Honi aurre egiteko bakoitzak bizi den herriko ezagutza, zerbitzuak, antolaketa, oinarritzko eskubideen ulermena eta bakoitzari eskatzen zaion betebeharrak ulertzea, gatazkei aurre egiteko bide batzuk jorratzea beharrezkoa izango da.

### Landuko diren oinarritzko gaitasunak (jarduerak)

- Gizarterako eta herritartasunerako g.: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7
- Ikasten ikasteko g.: 1, 4, 5, 6
- Hizkuntza komunikaziorako g.: 1, 2, 3, 4, 5, 6,
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko g.:3, 4, 7

- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako g 1, 2, 3, 5, 6

### Helburu didaktikoak:

- Ikasle bakoitzak bere eskolaren ezagutza handiagoa lortzea, ikasleek dituzten beharrak asetzeko eskolek eskeintzen dutena ezagutzea eta ikasleen betebeharrak hausnartzea.
- Oinarrizko eskolaren , funtzionamendua eta antolaketa ezagutzea eta aztertzea.
- Eskolako gastuak identifikatzea .
- Eskolaren funtzio nagusiak eta antolaketa identifikatzea.
- Eskolako gobernuaren autoritate irudi ezberdinen funtzioak ezberdintzea.
- Eguneroko bizitzan eskolako funtzionamendu demokratikoan ikasleek eta beraien familiek dituzten eskubideak eta betebeharrak aztertzea eta hori kontuan harturik ezadostasunen aurrean bide ezberdinak jorratzea .
- Ikasleek bere eskoletako hobekuntzaz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko, eskolako Asanbladan parte hartzea.
- Gatazkak eta ebazpenen aurrean jarrera eraikitzailea erabiltzea eta dialogoa eta negoziazioa ulertzeko eta kontsentsorako bideak erabiltzea.
- Edozein arazoen aurrean bere ikuspegia aztertze gain, besteen lekuan ipintzea
- Liskarrei aurre egiterakoan giza eskubideak defendatzea eta giza trebetasunak erabiltzea.

### Edukiak:

- Ikasleek eskolan dituzten Eskubide eta Betebeharrak.
- Eskolaren ezagutza:Organo Gorena , Oinarrizko zerbitzuak, funtzionamendua eta antolaketa.
- Eskolako kudeaketa nork egiten du..
- Eskolaren funtzioak eta antolaketa.
- Gobernu irudi ezberdinak : OMR, Zuzendaritza taldea , Batzordeak ,....
- Erreklamazioak.
- Eskoletan eman daitezkeen liskarrei aurre egiteko bideak.
- Ikasleen arteko desberdintasunak aberastasun-iturri moduan bizitzea.
- Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoa, negoziazioa, adiskidetzea, erreparazioa,....
- Eskolako edo gelako batzarretan parte hartzeko trebetasunak.
- Informea, Elkarrizketa, aurkezpena egiteko baliabideak.
- Elkarren sentimenduak balioestea besteen lekuetan jarriz.
- Eskubideak eta betebeharrak elkarrekin.

### Jardueren sekuentzia:

- 1. saioa: Zer dakigu gai honi buruz?. Erabakiak non eta zeinek hartzen ditu.
- 2. saioa:., Eskolako beharrak nork ordaintzen ditu.
- 3. saioa: Eskolako espazio komunen arautegia adostea.
- 4. saioa: Eskolaren gobernu irudiak, antolaketa, funtzionamendua. Organo Gorena nola dago osatuta eta zein funtzio dituen
- 5. saioa: Entzute aktiboa eta gatazken ebazpenerako trebetasunak aplikatzea
- 6. saioa: Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoa, negoziazioa
- 7. saioa:,... Zer ikasi dugu: informea, aurkezpena, elkarrizketa.

### Ebaluazioa: Adierazleak eta jarduerak

- Eskola baten antolamenduaz informazio bildu eta era antolatuan aztertzeko gai da:
- Eskolako guraso , irakasle, ikasleen eskubideak eta betebeharrak identifikatu eta ulertzen ditu bere bizitzarekin erlazionatuz:
- Eskubideak unibertsalak direla identifikatzen ditu:
- Informazioak bide ezberdinak jorratuz bildu, antolatu eta konpartitzeko gai da:
- Eskolan gastuak nork ordaintzen dituen ezagutzen ditu.
- Eskolan eman daitezkeen gatazkak, liskarrak, ez adostasunen aurrean bide positiboak erabiltzen ditu.
- Informazioa, zerbitzuak, autoritate irudiak ezagutu eta errespetatzeko jarrera agertzen du:
- Parte hartzen du aktiboki gelan planteatzen diren eztabaidatan (eta jardueretan):
- Talde-lana aurrera ateratzeko borondate baikor eta lagunkoia erakusten du:
- Modu egoki batean adierazten ditu, eskola kideen aurrean, gaiaren inguruan bizi izandako esperientziak:

**1. jarduera: Erabakiak non eta zeinek hartzen ditu**

**NORTZUK OSATZEN DUGU ESKOLA**

AHAL BADUZUE ASMATU ESKOLAN EDO ESKOLAKO BIZITZAN PARTE HARTZEN DUGUN GUZTIAK ETA ZEIN DEN BAKOITZAREN PAPERA. Adibidez irakasleok parte hartzen dugu eskolan eta gure funtzioak irakastea eta ikasten laguntzea dira.

<b>ZEINTZUK OSATZEN DUGU ESKOLA EDO ZEINTZUK PARTE HARTZEN DUGU ESKOLAN?</b>	<b>ZERTAN EDO NOLA?</b>
Adibidez: irakasleak	irakasten...

Taula honetan azaltzen den zerrendan idatz ezazu zure ustez nork hartzen duen erabakia

### ERABAKIAK NON ETA ZEINEK HARTZEN DITUEN

Eskola martxan jartzeko eta aurrera eramateko gauza erabaki behar dira, adibidez:
• <i>zer ikasi behar den: gaiak edo asignaturak, arauak...</i>
• <i>zenbat ikasi behar den: gutxiengo ezagupenak...</i>
• <i>zenbat egunetan aritu behar dugun eskolan: ikasleek eta irakasleek...</i>
• <i>zein egutegi izango dugun</i>
• <i>zein ordutegi izango dugun</i>
• <i>zein material behar dugun</i>
• <i>zein kirol-aktibitate izango dugun eskolako ordutegitik kanpo</i>
• <i>horien antolaketa</i>
• <i>nola zaindu jolastokia</i>
• <i>zertan eta norekin jolastu jolas garaian</i>
• <i>zer egin geletan, antolaketa</i>
• <i>zer egin eskolan ospatzen diren festetan</i>
• <i>ze txango egin eskolako ordutegi barruan</i>
• <i>zer txango egin asteburuetan</i>
• <i>Donostiako danborradan nola parte hartu</i>
• <i>zer menu izango dugun jantokian</i>
• <i>nola antolatu jantokia</i>
• <i>eskolako garbiketa nola egin</i>
• <i>konponketak nola egin</i>

• **BESTEAK:**

**ERABAKITZAILEAK:**

ESPAINIAKO GOBERNUA(Hezkuntza ministerio)

EUSKAL GOBERNUA( Hezkuntza saila)

UDALETXEA

ESKOLAKO KONTSEILUA(irakasle, guraso, udaletxe eta irakasle ez diren langileen ordezkarien batzarra)

IRAKASLEEN KLAUS TROA

GURASO ELKARTEA

ZUZENDARITZA

ZIKLOKO IRAKASLEEN BATZARRA

MINTEGIA(gai berbera ematen duten irakasleen batzarra)

ZUZENDARITZA TALDEA(zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria)

IKASLEEN ASANBLADA

IKASLEEN GELAKO BILERA

AUZO LAGUN

JANTOKIKO LANGILEAK

JANTOKI KO IKASLEEN BILERA

KIROL ETA EXTRAESKOLARRETAKO KOORDINAKUNTZA

BESTEAK

**LOTU ERABAKIAK ETA ERABAKITZAILEAK**

<b>Eskola martxan jartzeko eta aurrera eramateko gauza erabaki behar dira, adibidez:</b>	<b>Zeinek erabaki behar du hori?</b>
• <i>zer ikasi behar den: gaiak edo asignaturak, arauak...</i>	
• <i>zenbat ikasi behar den: gutxiengo ezagupenak...</i>	
• <i>zenbat egunetan aritu behar dugun eskolan: ikasleek eta irakasleek...</i>	
• <i>zein egutegi izango dugun</i>	
• <i>zein ordutegi izango dugun</i>	
• <i>zein material behar dugun</i>	
• <i>zein kirol-aktibitate izango dugun eskolako ordutegitik kanpo</i>	
• <i>horien antolaketa</i>	
• <i>nola zaindu jolastokia</i>	
• <i>zertan eta norekin jolastu jolas garaian</i>	
• <i>zer egin geletan, antolaketa</i>	
• <i>zer egin eskolan ospatzen diren festetan</i>	
• <i>ze txango egin eskolako ordutegi barruan</i>	
• <i>zer txango egin asteburuetan</i>	
• <i>Donostiako danborradan nola parte hartu</i>	
• <i>zer menu izango dugun jantokian</i>	
• <i>nola antolatu jantokia</i>	
• <i>eskolako garbiketa nola egin</i>	
• <i>konponketak nola egin</i>	



**2.JARDUERA: Nork ordaintzen ditu eskolako beharrak**

Ondoren dagoen taula betetzen saiatu zaitezte , lehenengo bakarkako lana egin ezazue . Ondoren bost laguneko taldeak osa itzazue eta bakoitzak bete duena elkarjarri taldean eta desadostasunak baleude saiatu eztabaidatzen zein izango litzateke erantzun zuzena . Ondoren talde bakoitzean ateratakoa gela osoari azalduko dio eta denon artean taula bakarra osatuko duzue.

BEHARRAK	Nondik dator dirua? edo nork ordaintzen du?
ADIBIDEZ: irakasleak beharrezkoak dira	Euskal Gobernuak (zergen bitartez jasotako diruaz)

Adibidez:

Ferreriasen liburutegia, telebista, prentsa eta txiki webeko guneak berriro dituzte, nork ordainduko die langileei?

Nork ordainduko ditu erabili dituzten materialak?

Nork ordainduko du zuetako batzuk eskolan jaten duzuen?

Nork ordainduko du Morlans berria?

Nork ordaindu du eman dizugun arkatza?

PISTAK: irakasleontzat: ikasleak, irakasleak, gurasoak, Aransgiko irakasleak, irakasle laguntzaileak edo auxiliarrak, sukaldariak, jantokiko zaindariak, atezainak, mantenimenduko arduraduna, extraeskolarrak ekintzen arduraduna, udaletxeko ordezkaria, udaletxeko langileak: arotzak elektrikariak..., hezkuntzako ikuskariak, suhiltzaileak, medikua eta erizaina, berritzeguneko logopedak, Etxeko Janak, autobuseko gidariak, enpresakoak...)

**3 jarduera: Eskolako arautegiaren ezagutza**

Ondoko taula betetzen saiatu zaitetze taldeka , zeintzuk dira zuretzako ezagunak diren gure eskolako arauak espazio desberdin hauetan :

**ARAUEN BILKETA**

TALDEA:

DATA:

GELETAN

--

JOLASTOKIAN

--

PASILOETAN-KORIDOREETAN

--

KOMUNEETAN

--

JANGELAN

--

BESTETAN

--

Taula hauek bete ondoren aztertu gelan zeintzuk izan diren denon artean ezagunak zaizkizuen arauak espazio amankomun hauetan eta 3 garrantzitsuenak aukeratu , horretarako puntu gehien lortzen dutenak aukeratu baeharko dituzue .  
(Teknika nominala erabili kontsentsoetara iristeko )

#### 4 JARDUERA: Eskolako atarietako arautegia

Gure eskolako atariaren erabilpena ikasle guztiena da , ziklo eta adin guztietako haurrak dute eskubide berdina , horregatik saiatu behar dugu erabilpena arautzen eta horretarako 3 espazio bereiztu nahi ditugu , alde batetik goiko pista , bestetik erdiko pista eta bestetik parkea . Astean zehar espazio desberdinetatik errotatuko dugu 1.,2.eta3. zikloko ikasleak . Ondoren hiru espazio horiek kontutan harturik elkartu zaitezte bosteko taldeetan eta zerrendatu itzazue zeintzuk izango lirateke zuen gustoko materialak espazio bakoitzeko.



Gure  
atariko  
arauak

Zure ustez zeintzuk izango lirateke espazio honetan denok jolasteko atara beharko genituzkeen materialak .




Zure ustez zeintzuk izango lirateke espazio honetan denok jolasteko atera beharko genituzkeen materialak




Zure ustez zeintzuk izango lirateke espazio honetan denok jolasteko atera beharko genituzkeen materialak .




Taldeetan ateratako proposamenak aztertu ondoren adostasun desberdinetara iritsiko dira eta hauek izan daitezke adibide batzuk :

<b>GOIKO PISTA</b>	<b>BEHEKO PISTA</b>	<b>PARKEA</b>	<b>HAUR HEZKUNTZA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 KOTXEAK ETA ALFONBRAK</li> <li>🔗 ERAIKETARAKO PIEZA HANDIAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 MOTORRAK</li> <li>🔗 SALTATZEKO PILOTAK</li> </ul>		
<b>GOIKO PISTA</b>	<b>BEHEKO PISTA</b>	<b>PARKEA</b>	<b>1.ETA 2.MAILA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 PALAK ETA PILOTAK</li> <li>🔗 SASKIBALOIKO BALOIAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 SALTATZEKO PILOTAK</li> <li>🔗 KANASTAK</li> <li>🔗 PILOTAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 ERAIKETAK ETA UZTAI PLANOAK</li> <li>🔗 ALFONBRAK ETA KOTXEAK</li> <li>🔗 EGURREZKO ERAIKIN PIEZAK</li> <li>🔗 PARTXISA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗</li> </ul>
<b>GOIKO PISTA</b>	<b>BEHEKO PISTA</b>	<b>PARKEA</b>	<b>3.4.5.ETA6.MAILA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 ESKU PILOTA</li> <li>🔗 SASKIBALOIKO BALOIAK</li> <li>🔗 RAKETAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 KARROAK ETA SOKAK</li> <li>🔗 HEGALARI DISKOAK</li> <li>🔗 DIABOLOAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗 HIRU LERROAN</li> <li>🔗 PIN-PON</li> <li>🔗 PARTXISA-OCA...</li> <li>🔗 TWISTERRA</li> <li>🔗 SOKAK-GOMAK</li> <li>🔗 UDAKO ESKIAK</li> <li>🔗 UZTIAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>🔗</li> </ul>



Orain denon artean saiatuko gara adosten Jolastokiko arautegia zein izango den eta harbelean idatziko dugu , gero elkarjartzea egiteko asanblada batetan gela guztietako ordezkairiekin eta ondokoa izan daiteke eredu bat

### JOLASTOKIO ARAUAK

Gela guztietan jolastokiko arduradunak daude. Lehen zikloan egunero aldatzen da, baina 2. eta 3. ean astero.

Arduradunek besokoa eramaten dute. Bost minutu lehenago jaisten dira jolastokira eta irakasleak prestatutako kutzak hartu eta bere jolasgunera eramaten dituzte. Gero. jolasordua amaitu ondoren kutzak hartu eta material gelara eramaten dituzte.

Beste ikasleak bere jolasgunean jolasten dira materialarekin modu egokian erabiliz eta jolasordua amaitu ondoren erabilitakoa batzen dute.

Gatazkak adostokian konpontzen dira.

Horretarako bi aulki ateratzen dira, ahoa eta belarriarekin,

Astero astero eskolako sarrerako kortxoan atarien banaketa kuadroa irakurriko dugu eta arduradunak atariko irakle zainketa arduradunarengana joango dira biltegira eta dagokien espazioan materialak aterako dituzte . Horretarako txartel berezi bat eramango dute soinean arduradun guztiak eta lan hau errotatuz astero egingo du gela bakoitzak . Hemen dago eredu aukera bat korstxoan jarri ahal izateko.

ZELAIAK IHARDUERAK	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
 <b>FRONTOIA</b>	<b>1.2.</b>	<b>3.4.</b>	<b>5.6.</b>	<b>1.2.</b>	<b>3.4</b>
 <b>PATIOA</b>	<b>3.4.</b>	<b>5.6.</b>	<b>1.2.</b>	<b>3.4.</b>	<b>5.6.</b>
 <b>ATERPEA</b>	<b>5.6.</b>	<b>1.2.</b>	<b>3.4.</b>	<b>5.6.</b>	<b>1.2.</b>

### 5. jarduera: Entzute aktiboa eta gatazken ebazpenerako trebetasunak aplikatzea

Gaurko saioan ariketa dibertigarri bat proposatzen dizuet , gaur imaginatu ezazue zuzendaria klasera datorrela eta ondorengo hau esaten duela: gaur eskolan hiru gauza aldatzeko boterea duzue .

Baina baldintza bakar bat jarriko dizuet , klaseko pertsona guztiak ados egon beharko duzue aldatuko dituzuen hiru gauzekin .

Orain bakarka idatz itzazue aldatu nahi dituzuen hiru gauzak .

Ondoren bikoteka ipiniko zarete eta bien artean zerrenda bakarra osatu beharko duzue , horretarako eztabaidan zaudeten bitartean saiatu zaitezte entzute aktiboa praktikan jartzen

- Orain jarraitu eta ikasleak lauko taldeetan batu , gero zortzikoetan eta gero hamaseikoetan . Talde bakoitzak kideak ados dauden hiru proposamenen zerrenda egiteko ideiak agertu behar ditu . ( Taldeak haundiagoak izan ahala , denbora gehiago eman beharko genieke akordioak egiteko ) : Taldeak hamaseikoak direnean , talde osoari eskatu elkarrekin lan egin dezatela zerrenda bakarra ateratzeko . Azken zerrenda arbelean idatzi . Ikasleekin eztabaidatu
  - Zer iruditu zaizue ariketa hau ?
  - Nola sentitu zarete zuentzat garrantzitsua zen zerbait ez denean zerrendan azaldu ?
  - Nola saiatu zarete besteak konbentzitzen zuen ideia zerrendan sar zedin?
  - Entzute aktiboa erabili al duzue eztabaidatzean ?
  - Laguntzarik izan al duzue? Nola?

**6.jarduera: Nola dago osatuta eskolako Organo Gorena**

Gaurko saio hasteko galdera batzuk zuzendu behar dizkizuet :  
Norbaitek ba al daki zerbait Eskola Organo Gorenari buruz . Zer da ?  
Gelako norbaiten gurasoa al da partaidea?  
Ba al dakizu zertan parte hartzen duen?

Orain banatuko dizuet orri honetan azaltzen da eskolako organo gorenaren osaketa eta funtzioak , taldeka irakurritakoa kontutan harturik presta ezazue zuen Ikastexeko Zuzendariari galdeketa bat

**Ondorengo galdeketa antzeko bat prestatu daiteke zure ikastetxeko zuzendariarekin bete ahal izateko:**

Nortzuk osatzen dute Organo Gorena?.....  
.....  
Zenbat irakasleek osatzen dute?.....  
.....  
Zenbat guraso daude?.....  
.....  
Beste norbait ba al dago osaketan?.....  
.....  
Zeintzuk dira beraien funtzioak?.....  
.....  
Ze maiztasunekin elkartzen dira?.....  
.....  
Bilera horren akta nork jasotzen du? Zertarako?.....  
.....  
Zeintzuk izan dira Organo Gorenak hartu dituen azkeneko erabakiak?.....  
.....  
Ikastetxe guztiak al dute?.....  
.....  
Nori ematen zaio Organo Gorenak hartzen dituen erabakien berri?.....  
.....  
Organo Gorenak ba al ditu batzordeak?..... Zeintzuk dira?.....  
Zer egiten du batzorde ekonomikoak?.....  
.....  
Eta Zerbitzu batzordeak?  
Eta Ekintza osagarrien batzordeak?  
Eta Kirol Batzordeak?  
Eta Batzorde Iraunkorrak?.....  
.....

Informazio hau jaso ondoren presta ezazu testu bat hurrengo asteko **eskolako aldizkarian** argitaratzeko .  
Gure eskolako Organo Gorena honela dago osatuta, eginkizun hau du .....

**JARDUERA: Zer ikasi dugu**

**ORAIN Roll Playing bat**

- a) Aukeratu ezazue orain zuen ikastetxean duzuen arazoren bat
  - b) Banatu Organo Gorenaren osaketaren arabera partaideak . Batzuk gurasoak izango dira ( Gelako 1/3 ) , beste batzuk irakasleak izango dira( 1/3 ) , administrazio edo zerbitzuetako ordezkari bat , Udaletxeko ordezkari bat , Zuzendaria , ikasketa burua eta idazkaria ( botorik ez duena).
  - c) Zein ondorenetara iritsi zarete.
- Nola ikusi dute kanpotik beste gelakideek eztabaidak egiñon badira , erabili al dira , entzute aktiboa , asertibitaea , enpatia , ni mezuak .....



ATOEBALUAZIOA

<b>1 Ikastetxe guztiak ba dute Organo Gorena</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>2 Organo Gorena irakasleez osatuta dago bakarrik</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>3 Organo Gorena batzorde desberdinez osatua dago</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>4 Organo Gorenean guraso gehiago daude irakasle baino</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>5 Batzorde iraunkorraren ardura eskolako dirua antolatzea da</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>6 Udaletxeak ez du inongo ordezkariarik Organo Gorenean</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>7 Organo Gorenak ez du idazkariaren beharrik</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>8 Urtean behin biltzen da gure eskolako Organo Gorena</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>9 Organo Gorenaren lehendakaria zuzendaria da</b>	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>10 Organo Gorenak ez du eginkizun garrantzitsua eskolan</b>	<b>B</b>	<b>E</b>

Ondorengo **GALDEKETA** honetan aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun bakarra , gero bikotetan elkartu eta aztertu emaitzak .

### ERABAKIAK HARTZEN IKASTEA

Erabaki bat hartu aurretik hau egin behar dut:

- Denbora apur bat hartu zein aukera dudan pentsatzeko eta egokiena aukeratu.
- Ezer pentsatu gabe lehenbailehen erabaki.
- Besteek ea zer egiten duten ikusi eta gauza bera egin.

Erabaki bat hartzeko zer da egokiena?

- Ea nire erabaki horrek zein ondorio ezar diezadakeen pentsatzea.
- Une horretako apetaren arabera aukeratzea.
- Ea niretzat eta besteentzat erabaki horrek zein ondorio ezar dezakeen pentsatzea.

Erabaki bat taldean hartu behar denean hauxe da onena:

- Azkarrenak erabaki dezala.
- Erabakia denen artean hartzea.
- Prestakuntzarik apalena dutenei ez utzi iritzirik ematen.

Erabaki bat hartzerakoan honi eman behar zaio lehentasuna:

- Nire interesentzat onuragarria izatea.
- Besteen eskubideak errespetatzea.
- Nire eta besteen eskubideak errespetatzea.

Helduek nigan eragin zuzena duen erabaki bat hartzekotan daudelarik hauxe egin behar dut:


- Isilik Egon eta esaten didatena egin
- Nire iritzia inposatzen saiatu
- Nire iritzia eta sentimenduak adierazi.

Erabakiak hartzean okerrik eginez gero:

- Gaizki sentituko naiz eta ez dut sekula beste erabakirik hartuko.
- Aztertu egingo dut ea zertan huts egin dudan eta hurrengo baterako ikasiko dut.
- Ez dut ezer egingo.

## LAN OSAGARRIAK

### JOLAS KOOPERATIBOAK




#### **Amona Mantangorrien Inauteri Dantzaldia**

Jolas zoragarria!. 2-8 jokalaria, 6 urte baino gehiagoko umeentzat.

Nor iritsiko da lehena inauteri dantzaldira? Mahai biribileko janaria lapurtu nahi duten inurri tripazainak? Ala bertara gonbidatuak izan diren amona mantangorriak? Baina inauteri dantzaldia denez, amona mantangorriek mozorrotu egin beharko dute. Mozorroak oso sinpleak dira: kolore desberdinetako bost barratxo dira. Mozorroa lortuko dute beren artean barratxoak trukatuta, eta batek lortzen duen bakoitzean hegan abiatuko da dantzaldira.



LIBURUA IRAKURRI



**Gaia :** Desberdina izatea .

**Izenburua:** Elmer

**Idazlea:** David Mackee

**Editoriala:** Beascoa

Irakurri artikulo hau eta aztertu

## 6-11 urte. Gatazken konponbidea: gurasoen laguntzan eta haurren autoerregulazioan oinarritutako ikasketa



**ALEX MUELA**

**Psikoterapeuta  
EHUko Psikologia Fakultateko Irakaslea**

Haurren garapenean gurasoak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat beren seme-alaben gizarte-gaitasuna eta gatazka konpontzeko gaitasuna da. Kezka hori 6 urtetik aurrera areagotu egiten da, eta, batez ere, nerabezaroarrear eta nerabezaroan.

Gaur egun, gurasoek beren seme-alaben gizarte-gatazka kudeatzeko duten gaitasunean nolabaiteko atzera egitea bizi dugu. Horren lekuko dugu askotan iristen zaizkigun berriak edo guk geuk ikusten ditugun egoerak; hau da, berdinen arteko gatazka, askotan, gurasoen arteko eztabaidan bukatzen dute, bizilagunaren semea/alaba lotsagabea, liskartia edo antisoziala dela argudiatuta; edo helduen arteko borroka bizian bukatzen dute, inolako lotsarik gabe leku publikoetan egiten direnak; edo, are okerrago, berdinen arteko arazoak, azkenean gurasoek jarritako salaketan bukatzen dute.

Ukaezina da, oro har, indarkeria gehiegi duen gizartearen bizi garea. Gatazka ez dira, oro har, behar bezala konpontzen, eta askotan gatazka horiek epaitegietan bukatzen dute, eta gurasoak halako ereduarekin eta prozedurarekin kutsatzen dira. Hala ere, heziketaren ikuspuntutik, halako jarrerekin nahiz eta gurasoek beren seme-alabak babesteko borondate ukaezina erakutsi, haurrak edo nerabezaroarreak halako gizarte-zailtasunei aurre egiteko izan beharko lukeen gaitasun pertsonala murrizten duen eredura jotzen dute gatazka konpontzeko. Halaber, mekanismo judizialak aktibatzen direnean, oso gutxitan ekartzen dute mekanismo horiek norberak nahi lukeen bukaera, eta gainera, horren aztarna geratu ohi da haurraren eta familiaren artean.

Horrela, bada, artikulu honetan saiatuko gara gatazka konpontzeko oinarritzko eredu bat ezartzen. Oinarria gurasoen esku-hartze pedagogiko goiztiarra izango da, gurasoen sostenguan eta haurraren autoerregulazioan errota. Saiakera egiteko gonbidapena luzatzen dizuegu. Eredu horren arabera, gatazka behar bezala konponduko badugu, honako oinarritzko lau jokabide-arau bete beharko ditugu:

**1. Lasaitasuna berreskuratzea.** Gatazka-egoeretan, biologikoki, mehatxuaren aurrean defentsa izaerako aldaketa fisiologikoak aktibatzen joera izaten dugu (bihotz-taupadak bizkortzen dira, gorputza gogortzen, eta abar). Haurrak fisiologikoki lasaitasuna berreskuratzea beharra dauka, eta horretarako, ezinbestekoa da

aipatu aldaketa horiek kontzienteki desaktibatzen ikastea. Gurasoek ezarriko duten eredu funtsezkoa da ikasketa horretan.


**2. Elkarriketa kooperatiboa bultzatu.** Alegia, txandaka, bi haurrek buruan dutena eta sentitzen dutena adierazten jakin behar dute beren kabuz, eta solaskideak, berriz, entzute aktiboa egin beharko du. Gurasoak edo hezitzaileak bigarren mailan dauden haurrek burutu beharreko eginkizunean tartean sartu gabe, eta bitartekotza egin gabe.

**3. Konponbiderako ekintzak.** Bi haurrek, helduaren bitartekaritza gabe, arazoa nola konpondu pentsatu behar dute. Bakoitzak adierazitako proposamena baloratuta, biak gogobeteko dituen aukera abiarazi beharko dute. Logikoa da pentsatzea fase hori nekeza izango dela; hala ere, garrantzi handikoa da heldua tartean ez sartzea, nahiz eta

prozesuaren begirale izan beharko duen. Askotan, helduok hartzen ditugun erabakiak ez dira egokienak, eta haurrei gaitasuna kentzen diete gatazka konpontzeko beren mekanismo propioak abian jartzeko. Haurrek heldua tartean sartzea eskatzen badute, helduak entzun egingo du, eta, ondoren, gatazka beraiek bertan konpondu behar dutela adieraziko die. Gatazka konponduta, helduei jakinaraziko diete zein den adostutako konponbidea.

**4. Adostutakoa martxan jartzea.** Ezinbestekoa da haurrek ulertzea adostutako neurriak gauzatu egin behar direla. Urrats hori garrantzi handikoa da, hitzetatik ekintzetara pasako baikara. Haurrek kontuan hartu behar dute hartutako konpromisoak iraunkorrak direla, eta erantzukizuna eskatzen dutela.

Azken finean, deskribatutako metodoaren helburua da haurrak gatazka konpontzerakoan bereziki eraginkorrak izatea, eta berdinekin sentikortasunez eta heldutasunez komunikatzea. Metodologia hau hiru urtetik aurrera aplikatu daiteke, bai familian bertan, bai eskolan. Bai anai-arreben arteko bai berdinen arteko harreman gatazkatuetan. Esperientziak argi erakusten digu aipatu metodologia ulertzen eta ezartzen duten haurrak goxoak, kooperatiboak, gizarte-harremanen aldekoak izan ohi direla; nekez oldarkorrak.



## BIDEOKLIPA EGITEN

### 1.- Deskribapena

Abestiek igortzen dituzten mezuei buruzko gogoeta egitea eta denen artean bideoklip bat egitean datza.

### 2.- Helburuak

- Abestiek igortzen dituzten mezuak entzutea.
- Abestien hitzetan esplizituak ez diren mezuak aurkitzea.
- Abestien hitzek Giza Eskubideak errespetatzen dituzten ala ez aztertzea.
- Sormena eta elkarlana bultzatzea.

### 3.- Partaideak

Gutxienez 10 pertsona.  
Adina: 14 urtetik aurrera.

### 4.- Materiala

Abestien hitzak, irrati-kasetea, mozorrotzeko telak edo arropak, estraza-papera, margoak, errotuladoreak.

### 5.- Abiapuntuko arauak

Talde handia.

### 6.- Garapena

Haurrek abeslari ezagun batzuen abestiak entzun eta aztertuko dituzte. Musika entzuten duten bitartean, lurrean jarritako horma-irudi bat margotuko dute.

Abestiak entzun ondoren, bateratze-lan bat egingo da haur bakoitzak bere gogoetak besteekin partekatzeko. Abesti guztiak aztertu direnean, haurrek bat aukeratuko dute eta bideoklipa prestatuko dute.

Proposatzen ditugun abestiek Latinoamerikako egoera deskribatzen dute, baina beste abesti interesgarri batzuk ere badaude: Joaquín Sabinarenak, Joan Manuel Serratenak, etab.

### 7.- Ebaluazioa

Nola sentitu zarete abestia entzuterakoan? Abestian aipatutako zein gauza ezagutzen dituzue? Zeintzuk ez dituzue ezagutzen? Haurrei ezagutzen ez dituzten izen, gertaera eta hitz guztiak azaltzea komeni da, abestiaren mezua ongi uler dezaten.


Zein egoera edo egoerei buruz hitz egiten du abestiak? Zein da abestiaren gai nagusia? Zer esan nahi digu abeslariak? Zein balore azaltzen dira abestian?

Zein giza eskubiderekin loturik dago abestia? Zer egiteko gogoia sartzen zaizue abestia entzuterakoan?

### 8.- Iturria

Aukeratutako edozein abesti.





Beste munduko jolasen liburu hau oso interesgarria gerta daiteke

